



(/)


Hitz zentroaren bi demo sarean euskarazko puntako teknologia probatzeko



Sustatu

2024-06-24 : 09:13

HiTZ Zentroak (<https://labur.eus/hitz15>), EHUKO hizkuntza teknologien ikertegi eta Latxa adimen artifizialaren sortzaileak (<https://labur.eus/latxa15>), bi demo edo probatzeko tresna jarri ditu sarean berriki, Hugging Face sistemaren bidez. Batak euskarazko ahotsa transkribatzen du; eta besteak determinatzen du ea testu bat euskarazko C1 maila erdiesteko balio duen. Probatu nahi dituzue? Ekin.



Hona lehen tresna, ASR egiten duena (https://huggingface.co/spaces/HiTZ/Demo_Basque_ASR) (ASR: Automated Speech Recognition hizketaren ezagutza automatikoa). Bi modutan erabil daiteke, zuzenean zure gailuko mikrofonoaren bidez zerbait grabatuz, ala WAV formatuan dagoen audio fitxategi bat igota. Grabaketa azkar bat egin dugu, eta euskara batuan primeran eman digu transkripzioa sistemak. Gure etentxoetatik puntuazio markarik ez du atera, akaso tentuz.

Spaces | HiTZ / Demo_Basque_ASR | like 2 | Running |

Basque Speech-to-Text Transcription

Transcribe speech from your audio file. The audio file must be .wav

output

sustaturako testu bat probatzen ari naiz testua idatziko duela sistemak espero dut ni hizketan ari naiz hitz zentroak prestatu duen dema honen bitartez eta ikus dezagun emaitza

Clear Submit

Bigarren tresnak balio du jakiteko ea testu jakin batek C1 maila ematen duen (https://huggingface.co/spaces/HiTZ/C1_sailkapen_demoa). Aproba egin dugu joan den asteko Sustatuko artikulu honen sarrera (<https://sustatu.eus/1718827011>) pasatuta. Eta doi-doi pasatu dugula esan liteke... Beste ondoriorik ez dugu aterako. Egin zuen aprobak.

Spaces | HiTZ / C1_sailkapen_demoa | like 3 | Running |

Testua

Ekialde Hurbileko zein tokitan gertatu zen lehen matxinada britaniar kolonialismoaren aurka? Nondik lortu zuen Israelek teknologia nuklearra? Zergatik erretiratu ziren Inglaterra eta Frantzia Suez kanaletik gerra irabazita zutenean? Nola irabazi zituen Hamasek Palestinako azken hauteskundeak? Palestinaren azken 100 urteetako historia modu orijinalean kontatzeaz gain, Rashid Khalidik idatzita eta Iñaki Alegriak itzulitako liburua baliagarria da atzo aurkeztu zuten hau: Ehun urteko gerra Palestinaren aurka. Aurreko galderetik eta beste askori erantzuteko gomendagarria. UEUk argitaratu du eta atzo aurkeztu zuten.

Bidali Ezabatu

Adibideak:

- C1-23: ESKOLA TXIKIAK ORAIN ETA BETI Heldu da eguna! Gure herriko...
- C1-18: HERRI TXIKIETAKO ESKOLAK Ohitura denez, aurten ere...
- C1-10: Gure egunerokoan erabiltzen ditugun tresna gehiakan...

C1 maila

Gai	52%
Gai	52%
Ez gai	48%

C1 mailak adierazten du hiztun bat (eusklaldun bat kasu honetan, baina beste hizkuntza batzuetako ebaluazioetan ere) erabiltzaile gaitua dela. Hau da, Eusko Jaurlaritzat ontzat emandako irizpideen arabera gai da lagunarteko, lan-esparruko eta komunikabideetako edozein testu (elkarritzetak, eztabaidak, azalpenak) ulertzeko; baita inguruko herri-hizkeran sortutakoak ere. Eta gai da, era berean,

lagunarteko elkarreraginean, lan-esparruan eta komunikabideetan ideiak eta iritziak jariotasunez eta eraginkortasunez adierazteko. Ongi egituratutako eta osatutako testu argiak eta zehatzak idazteko gai da, ideia nagusiak eta osagarriak bereiziz, eta, oro har, xedea lortzeko estrategia egokiak aukeratuz. Era berean, bere ikuspuntua luze eta zabal adierazteko gai da, ideia osagarriak eta adibide egokiak emanez. Garai bateko EGA tituluak euskara gaitasuna C1 mailakoa zela egiaztatzen zuen hain zuzen.



CodeSyntaxek kudeatua, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
(<https://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-704/eu/>) diruz lagundua.